

# Emakumeen ekarpenak ikusarazteko

*Mariasun Landa sarien V. edizioa*

**Noiz:** martxoaren 7a.

**Non:** Xenpelar Etxea, Errenteria-Orereta.

HERRIARI zerbait ekarri dioten emakumeak ezagutarazteko asmoz jarri zituzten martxan duela bost urte Mariasun Landa Sariak Errenteria-Oreretan. Martxoaren 8aren bueltan banatu ohi dira. Eta, pixkanaka, erreferentzialtasuna hartzen ari da herriko idazle ezagunenetarikoa izena daukan zita. Eredu interesgarri eta imitagarria beste herrientzat ere, urtero-urtero lortzen baitu historia nagusiak, ofizialak, gizonek idazten duten horrek hanka puntetan pasa dituen pertsonak lehen planora ekartzea.

Historia berreskuratzeko ariketa? Bai, baita gehiago ere. Zeresana duten emakumeen lana nabarmenduz, gaurko eta biharko emakumeek egiten dutenari ere merezi duen aitortza emateko aukerak biderkatzen baitira. Gertatutakoa berridaztea bezainbat da historia berria idazteko oinarriak jartzea.

Kalitatezko bederatzia lan aurkeztu dira aurten eta epaimahaiak bi sari eta bi aipamen berezi banatu ditu. Adineko emakumeen historiak izan dira protagonista 2015eko edizioan, Agustina Otaolarena esaterako. 1931n jaioa, 15 urterekin hasi zen erraketista profesional gisa jokatzen, familiako zenbait kideren pausoak jarraituz —lau osaba ere zeregin horretan aritzen ziren—. 1967an erretiratu zen frontoietatik, 41 urterekin eta garai hartako jokalaririk garrantzitsuenetarikoa bihurtuta. Non zegoen gordea nobela eder baterako ere emango lukeen historia hori? Ez, ez da kontu berria gizonezkoek egiten duten kirola argazki handitan argitaratzea, emakumeen balentriak albiste laburren tarterako utzita.



JAVIER CARBALLO

Agustina Otaola erraketista izan zen 41 urterekin erretiratu zen arte. Berari buruzko lan bat saritu dute aurtengo edizioan.

Kontatuak izatea merezi duten historiak dira. Formatu laburreko testuak (6.000 karaktere artekoak) saritu dituzte martxoan, baina aurtengo irabazleen artean badago arnas luzeagoko lanak idazteko aukera eman dezakeen lehengairik ere. ■



**Bildumaren aurkezpena**

**Martxoak 13**

ostirala  
18:30etan  
Xenpelar Etxean

**erakusketa** Industrializazioa, emakumeak eta lana Errenterian (XIX. eta XX. mendeetan)

Martxoaren 6tik 26ra



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazio Nagusia  
Berritzaile Zuzendaritza Nagusia  
Euzko Legebiltzariaren Kidea



Errenteriko Berritasunerako Kontseilua  
Consejo de Igualdad de Errenteria



Errenteriko Udala